

**Eusko
Ikaskuntzaren
Deia
116.a
1992.3**



**EUSKO
IKASKUNTZA**



Eusko-Ikaskuntzaren Deia

**Boletín de la Sociedad
de Estudios Vascos**

**Bulletin de la Société
d'Etudes Basques**

**PUBLICATION INTERNATIONALE
TRIMESTRIELLE**

XII Urtea - 2 Aroa - 116 Zenbakia
1992eko III Hiruhilabetea



*"Bekoak goikoa
eskondu leidi
ta txikiak andia
benzi leidi
azmoz ta jakitez"*

(Escudo de Armas de los AULESTIA. Bizkaia)

Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiaiko, Diputazioek 1918an sortutako erakundea.

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones de Araba, Gipuzkoa, Nafarroa y Bizkaia.

Institution fondée en 1918 par les «Diputaciones» d'Araba, Bizkaia, Gipuzkoa et Nafarroa.

GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIAZKO FITXA
FICHA BIBLIOGRAFICA RECOMENDADA
REFERENCE BIBLIOGRAPHIQUE RECOMMANDEE

EUSKO Ikaskuntzaren Deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos = Bulletin de la Société d'Etudes Basques. – 1 zb. (1919) – 69 zb. (1936); 2. aroa 70 zb. (1981) /
.– Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1919-1936; 1981–

Trimestral

21 cm.

Hasta el nº 115 (1992) se titulaba: Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos = Eusko Ikaskuntzaren Deia.

I. Eusko Ikaskuntza II. Eusko Ikaskuntzaren Deia III. Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos IV. Bulletin de la Société d'Etudes Basques

061.22(05)



EUSKO-İKASKUNTZA

Legazpi, 10 - 1.º 20004 San Sebastián

Legezko gordailua: S.S. 87/93

Fotokonposaketa eta inprimaketa:

Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

Hauen laguntzarekin - Con el patrocinio de - Sous l'égide de:

ARABAKO DIPUTAZIO FORALA
BIZKAIKO DIPUTAZIO FORALA
GIPUZKOAKO DIPUTAZIO FORALA
NAFARROAKO GOBERNUA
EUSKO JAURLARITZA

IDAZKARITZA NAGUSIA - SECRETARIA GENERAL - SECRETARIAT GENERAL

Gipuzkoako Diputazio Forala
Legazpi, 10-1.^º
20.004-Donostia
Telefonoa: 943 - 42 51 11
Fax: 943 - 42 22 50
Ordutegia/Horario/Horaire: 9'30-14 / 16-19

ARABAKO BULEGOA - OFICINA EN ALAVA - BUREAU D'ARABA

Arabako Diputazio Forala
San Antonio, 41
01.005-Gasteiz
Telefonoa - Fax: 945 - 23 15 52
Ordutegia/Horario/Horaire: 17'30-20

BIZKAIKO BULEGOA - OFICINA EN BIZKAIA - BUREAU DE BIZKAIA

Bizkaiko Diputazio Forala
María Díaz de Haro, 11-1.^º
48.013-Bilbao
Telefonoa - Fax: 94 - 4 425 287
Ordutegia /Horario/Horaire: 11-13'30

NAFARROAKO BULEGOA - OFICINA EN NAVARRA - BUREAU DE NAFARROA

García Castañón, 2-6.^º
31.002-Iruñea
Telefonoa: 948 - 22 21 05
Fax: 948 - 22 17 37
Ordutegia /Horario/Horaire: 11-14 / 16-20

IPARRALDEKO EGOITZA - SEDE DE IPARRALDE - SIEGE DE IPARRALDE

«Hegoa» - Villefranque
64990 St. Pierre d'Irube
Telefonoa: 59 449297
Fax: 59 449159

**EUSKAL HERRIKO HISTORIA KONTENPORANEOKO
DOKUMENTAZIO ZENTROA
CENTRO DE DOCUMENTACION DE HISTORIA CONTEMPORANEA
DEL PAIS VASCO
CENTRE DE DOCUMENTATION D'HISTOIRE CONTEMPORAINE
DU PAYS BASQUE**

Pampinot, s/n

20280 Hondarribia. Gipuzkoa

Telefonoa - Fax: 943 - 64 10 77

Ordutegia/Horario/Horaire: 9-14

AURKIBIDEA

Batzorde Nagusiaren bilera 1992ko ekainaren 20ean	7
Batzorde Nagusiaren bilera berezia 1992ko uztailaren 17an	39
Elkartearen ekintza	71
1992ko III hiruhilabeteko bilerak	71
1992ko III hiruhilabetean jasoriko ikerlanen laburpena	71
Eusko Ikaskuntza hainbat ekitaldi eta erakundetan	74
1992ko bigarren hiruhilabeteko dirusarrerak eta gastuak	75
Diruzaintzaren egoera 1992.06.30ean	77
Bazkideen 66. zerrenda	77
Argitalpenen aurkezpena	78
Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenaren ebazpena	78
Armarriei buruzko txostena	79
Donostia Aitaren Euskal Kantutegiari buruzko berriak	79
Sailletako Lehendakarien txostenak	79
Kontseilu batzorden sorrera	84
Elkartearen argitalpen berriak	85
Tituluak eta karguak	86
1992ko III. hiruhilabetean Eusko Ikaskuntzan jasoriko liburuen zerrenda	87

INDICE

Sesión de Junta Permanente de 20 de Junio de 1992	7
Sesión de Junta Permanente Extraordinaria de 17 de Julio de 1992	39
Actividades de la Sociedad	71
Reuniones del tercer trimestre de 1992	71
Resumen de los trabajos de investigación recibidos en el III trimestre de 1992	71
Presencia de la Sociedad en algunos actos	74
Ingresos y gastos del II trimestre de 1992	75
Situación de Tesorería en 30.06.92	77
66ª lista de socios	77
Presentación de publicaciones	78
Resolución del Tribunal Superior de Justicia de Navarra	78
Informe sobre escudos	79
Informe sobre el Cancionero Vasco del Aita Donostia	79
Informes de Presidentes de Sección	79
Creación de Comisiones	84
Nuevas publicaciones de la Sociedad	85
Títulos y Cargos	86
Relación de libros recibidos en Eusko Ikaskuntza en el III trimestre de 1992	87

Réunion du Comité Permanent du 20 Juin 1992	7
Réunion Extraordinaire du Comité Permanent du 17 Juillet 1992	39
Activités de la Société	71
Réunions du IIIème trimestre 1992	71
Résumés des travaux de recherches reçus au cours du IIIème trimestre 1992	71
Présence de la Société	74
Recettes et dépenses (IIIè trimestre 1992)	75
Situation de la Trésorerie au 30.06.92	77
66ème liste de membres	77
Présentation de publications	78
Résolution du Tribunal Supérieur de Justice de Nafarroa	78
Rapport sur les blasons	79
Rapport sur le Chansonnier du Père Donostia	79
Rapport des Présidents de Section	79
Création de Comités	84
Nouvelles publications de la Société	85
Titres et Fonctions	86
Compte-rendu d'ouvrages reçus à Eusko Ikaskuntza au cours du IIIè trimestre 1992	87

Batzorde Nagusiaren Bilera

1992ko ekainaren 20ean

Sesión de Junta Permanente

20 de Junio de 1992. Donostia

Réunion du Comité Permanent

20 Juin 1992 à Donostia

75. Akta 1992ko Ekainaren 20an
Gipuzkoako Foru Aldundi txit garaian Eusko
Ikaskuntzako Batzorde Nagusiak egindako
bilerari dagokiona.

Acta n.º 75 de la reunión de la Junta
Permanente de Eusko Ikaskuntza -
Sociedad de Estudios Vascos - celebrada el
día 20 de Junio de 1992 en la Excm. Di-
putación Foral de Gipuzkoa.

Partaideak:

Gregorio MONREAL Jauna
(Lehendakaria), Jose M^a ORTIZ DE
ORRÚÑO Jauna (Arabako
Lehendakariordea), Joseba
AGIRREAZKUENAGA Jauna (Bizkaiko
Lehendakariordea), Tomas URZAINQUI
(Nafarroko Lehendakariordea), Edorta
KORTADI Jauna (Idazkaria), Gurutzi
ARREGI Andrea (Idazkari-ordea), Juan
GARMENDIA LARRAÑAGA Jauna
(Idazkari Jostorea), José Ángel
ORMAZABAL Jauna (Diru-zaina), Jose
ZUFIAURRE Jauna (Diru-zain ordea),
Imanol OLAIZOLA Jauna (Biziko Kidea),
Gregorio ARRIEN Jauna (Hezkuntza Lan-
taldeko Lehendakaria), Jose M^a
ETXEBARRIA Jauna (Hizkuntza eta
Literatura Lan-taldeko Lehendakaria),
German YANKE Jauna (Komunikabide
Lan-taldeko Lehendakaria), Jon BAGÜES
Jauna (Musika Lan-taldeko Lehendakaria),
Xabier ZABALA Jauna (Natur-Zientzia Lan-
taldeko Lehendakaria), Eduardo
BERGANZA Jauna (Prehistoria eta
Arkeologia Lan-taldeko Lehendakaria),
Coro CILLAN-APALATEGUI Andrea
(Zuzenbide Lan-taldeko Lehendakaria), M^a
Jesus ARANBURU Andrea (Gipuzkoako
Foru Aldundi Txit Garaiaaren ordezkari),

Asistentes

D. Gregorio MONREAL (Presidente),
D. José M^a ORTIZ DE ORRÚÑO
(Vicepresidente por Alava), D. Joseba
AGIRREAZKUENAGA (Vicepresidente
por Bizkaia), D. Tomás URZAINQUI
(Vicepresidente por Navarra), D. Edorta
KORTADI (Secretario), D^a Gurutzi
ARREGI (Vicesecretaria), D. Juan
GARMENDIA LARRAÑAGA (Secretario
Gestor), D. José Ángel ORMAZABAL
(Tesorero), D. José ZUFIAURRE
(Vicetesorero), D. Imanol OLAIZOLA
(Miembro Vitalicio), D. Xabier ZABALA
(Presidente de la Sección de Ciencias
Naturales), D^a Coro CILLAN-
APALATEGUI (Presidente de la Sección
de Derecho), D. Gregorio ARRIEN
(Presidente de la Sección de
Educación), D. José M^a ETXEBARRIA
(Presidente de la Sección de Lengua y
Literatura), D. Germán YANKE
(Presidente de la Sección de Medios de
Comunicación), D. Jon BAGÜES
(Presidente de la Sección de Música), D.
Eduardo BERGANZA (Presidente de la
Sección de Prehistoria y Arqueología), D^a
Maria Jesús ARANBURU (Representante
de la Excm. Diputación Foral de
Gipuzkoa), D. Carlos IDOATE

Carlos IDOATE Jauna (Nafarroako Gobernu Txit Garaia eta Príncipe de Viana instituzioaren ordezkari), Carlos GOENA Jauna (Deustoko Unibertsitateko ordezkari - Donostiako Kanpua), Francisco ETXEBERRIA Jauna (Aranzadi Elkartearen ordezkari).

APALATEGI BEGIRISTAIN Joxemartin (Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea Gipuzkoatik); Xabier ARLABAN jauna (Zinematografia Lan-taldeko Lehendakaria) eta Anton ERKOREKA jauna (Antropologia eta Etnografia Lan-taldeko Lehendakaria) beren ezin-etorria adierazi dute.

Bilerako Mahaiburua Gregorio Monreal jauna izan zen, berriki, 1992ko Ekainaren 6an, Oñatin Bazkideen Batzar Nagusian Eusko Ikaskuntzako Lehendakari hautatua izan dena.

Lehendakariak José M^{te} Etxebarria, Hizkuntza eta Literatura Saileko Lehendakari berria aurkezten du.

Aurreko bilerari dagokion irakurketa eta onespena:

Batzorderako deiarekin batean 1992ko Martxoaren 14ean Batzorde Nagusiak egindako bileraren Akta bidalia izanik eta kide guztiek hura irakurtzeko eta legozkiokeen zuzenketak egiteko denbora nahikoa izan dutela kontuan harturik, ez diogu orain haren irakurketari ekiten eta **ONARTUA GERATZEN DA**, Imanol Olaizola jaunak egindako bi zuzenketa arin eranstean zaizkiolarik.

Lehendakariaren kargu jabetza:

Eusko Ikaskuntzako Idazkari Nagusiak 1992ko Ekainaren 6an Oñatin

(Representante del Excmo. Gobierno de Navarra y de la Institución Príncipe de Viana), D. Carlos GOENA (Representante de la Universidad de Deusto - Campus de Donostia), D. Francisco ETXEBERRIA (Representante de la Sociedad Aranzadi).

Excusan su asistencia los Sres. APALATEGI BEGIRISTAIN Joxemartin (Vicepresidente por Gipuzkoa); ARLABAN Xabier (Presidente de la Sección de Cinematografía) y ERKOREKA Anton (Presidente de la Sección de Antropología y Etnografía).

Preside la reunión D. Gregorio Monreal, recién elegido Presidente de Eusko Ikaskuntza en Junta General de socios celebrada en Oñate el 6 de Junio de 1992.

Presenta a D. José M^{te} Etxebarria, nuevo Presidente de la Sección de Hizkuntza eta Literatura.

Lectura y aprobación del acta de la reunión anterior:

Habiéndose enviado junto con la convocatoria a Junta el Acta de la reunión de la Junta Permanente de 14 de Marzo de 1992, y considerándose que todos los miembros han tenido tiempo para leer y enviar las correcciones oportunas a Secretaría General, no se procede a su lectura y **SE APRUEBA** con dos pequeñas correcciones aportadas por D. Imanol Olaizola.

Toma de posesión del Presidente:

El Secretario General de Eusko Ikaskuntza da lectura al Acta de la Junta

egindako Batzar Nagusiari dagokion Akta irakurtzen du, behin-behinekoa hurrengo Batzar Nagusiak onartu artean, bertan Gregorio Monreal y Zia Lehendakari berria hautatua izan zelarik eta izendapen horri dagokionean honela dio, gai-zerrendari jarraiki:

"... Bigarren Zatia

12 or. Lehendakari gaien programen aurkezpena.

- Gregorio Monreal
- Imanol Olaizola
- Juan Plazaola

12.45 or. Botazioa."

..."Deialdian adierazi bezala, Batzarraren bigarren zatian Gregorio Monreal, Imanol Olaizola eta Juan Plazaola jaunek beren programa aurkeztu zuten; gero, galdera-aldia ireki zen eta ondoko botazioa Batzorde Tipiko kideak buru zireneko lau mahaitan burutu zen, emaitza honako hau izan zelarik: Gregorio Monreal: 211 boto; Imanol Olaizola: 5 boto eta Juan Plazaola: 67 boto.

Iruñeko Egunsenti Talde Instrumentalak Raul Madinabeitiaren zuzendaritzapean eskainitako musika-interludioaren ondoren, Lehendakari berriak hitz batzu esan zituen joera eta eskola metodologiko ororen Lehendakari bateratzailea eta errepresentatiboa izango dela adieraziz, eta Batzar Nagusia aperitibo batez amaitu zen."

Lehendakariaren txostena:

Bere hitzaldiaren hasieran Lehendakariak eskertu egin dio Kultura Aldunak ordezkaturiko Gipuzkoako Foru Aldundiari berriro Batzorde Nagusia hartzerakoan erakutsi duen abegikortasuna.

General celebrada en Oñate el 6 de Junio de 1992, de carácter provisional hasta la aprobación por la próxima Junta General, en la que salió elegido el nuevo Presidente Don Gregorio Monreal y Zia y por lo que concierne al citado nombramiento es del siguiente tenor según el orden del día:

"...Segunda Parte

12,00 h. Exposición de programas por los candidatos a Presidente.

- Gregorio Monreal.
- Imanol Olaizola.
- Juan Plazaola.

Turno de preguntas.
12,45 h. Votación."

..."Como consta en la convocatoria, en la segunda parte de la Junta expusieron su programa los Sres. Gregorio Monreal, Imanol Olaizola y Juan Plazaola, estableciéndose un turno de preguntas y la posterior votación en cuatro mesas presididas por miembros del Comité Ejecutivo, cuyo resultado fue el siguiente: Gregorio Monreal: 211 votos, Imanol Olaizola: 5 votos y Juan Plazaola: 67 votos.

Tras el interludio musical tocado por el Conjunto Instrumental Egunsenti de Iruñea dirigido por Raul Madinabeitia, el nuevo Presidente dirigió unas palabras indicando que será un Presidente conciliador y representativo de todas las tendencias y escuelas metodológicas, acabándose la Junta General con un aperitivo."

Informe del Presidente:

El Presidente inicia su intervención agradeciendo a la Diputación Foral de Gipuzkoa, representada por la Diputada de Cultura, su hospitalidad al acoger una vez más a la Junta Permanente.

Idazkariak Oñatin buruturiko Batzar Nagusiaren akta irakurri du, eguneko gai-zerrendako puntu honi dagokionean hauteskunde-ekitaldiaz diharduena nabarmenduz.

Lehendakariak adierazten du karguaz jabetzeak erantzukizunak bete-betean hartzea suposatzen duela. Erantzukizun hori funtsean Elkartearen gune eta bihotza den organo kolegiatu honi dagokio, Batzar Nagusia, hots, konstituziogile eta arau emaile den edo organo gorenahaztu gabe.

Lehendakariak adierazi du ez Batzorde Nagusia ez eta Lehendakaritza, azken hau askoz gutxiago, ez direla berberak xedea, baizik eta Elkartearen sortzezko helburuak betetzeko instantziak. Garrantzizkoena xedeak dira eta ez bitartekoak, nahiz eta xedeotan ez genukeen behar bezalako arreta jarriko bitarteko egokiak erabiliko ez bagenitu. Aditza ematen du ez dela bitartekoez ez helburuez mintzatuko, beroriek Elkartekideei banaturiko programan aurkitzen bait dira. Alor horretan, orain Batzorde Nagusiaz mintzatzea dagokio, eta metodo arrazoiengatik, Elkartearen markoarekin zerkusia duten arazoetara mugatu beharra dago egun.

Bestalde, Lehendakariak Araudiari men egiteko borondatea adierazi du, Batzorde Nagusiari ematen dion zeregin garrantzitsuari dion begiruneagatik: kontua Araudia ahalik eta urrunena eramatea da, organo kolegiatu honen funtzioari doakionean. Halako jokabidearen arrazoia zera da, Eusko Ikaskuntzaren muina Sekzioak direlako uste sendoa, beraietako Lehendakariak Batzorde Nagusiaren barne daudelarik. Elkartearen baloreak bideratzea Lehendakari horien esku dago.

Lehendakariak adierazten du zenbait neurri hartu beharra dagoela Batzorde

El Secretario procede a dar lectura al acta de la Junta General celebrada en Oñate, destacando por lo que concierne a este punto del orden de día, la parte referente al acto electoral.

El Presidente manifiesta que la toma de posesión supone la asunción plena de responsabilidades. Responsabilidad que se refiere básicamente a la dirección de este órgano colegiado, núcleo y corazón de la Sociedad, sin olvidar la Asamblea General, órgano máximo que posee la facultad constituyente y reglamentaria.

Indica el Presidente que la Junta Permanente, y mucho menos la Presidencia constituyen un fin en sí mismo, puesto que son instancias para el cumplimiento de los objetivos fundacionales de la Sociedad. Lo importante son los fines y no los medios, aunque no se atendería correctamente a los fines si no se emplearan los medios adecuados. Da a entender que no va a hablar ni de medios ni de objetivos, que ya figuran en el programa distribuido a los socios de la Sociedad. En ese campo le corresponde ahora hablar de la propia Junta Permanente, y por razones de método, conviene limitarse hoy a las cuestiones relacionadas con el marco de la Sociedad.

Indica el Presidente su voluntad de observar el Reglamento, por lo que implica de respeto al importante papel que asigna a la Junta Permanente: se trata de llevar el Reglamento lo más lejos posible en cuanto a la función de este órgano colegiado. Tal actitud obedece al convencimiento, de que el núcleo de Eusko Ikaskuntza son las Secciones y de que en la Junta Permanente están presentes los Presidentes de las mismas. Toca a los Presidentes vehicular los valores que posee la Sociedad.

Manifiesta el Presidente que para hacer efectivo el papel asignado a la

Nagusuari egokitu zaion zeregina bete dezan. Lehenik eta behin, *Batzordearen instituzionalizazioa osatu beharra dago* eta honek, agian, Araudiaren berrikuntza ekarriko du. Agerikoa da, alabaina, Araudia berritu beharra dagoela Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza sarrera eman ahal izateko. Bestalde, komenigarria dirudi Iparraldean Lehendakariordetza bat sortzeak, hots, Eusko Ikaskuntzak 1978an berriro abiatzerakoan izan zuenaren antzekoa. Azkenik, Araudian aurrikusia den Diasporako Lehendakariordetzaren izendapena ere burutu beharra dago. Instituzionalizazioa Saitetako Lehendakarien integrazioarekin osatuko litzateke.

Bigarrenik, *Batzorde Nagusiko kideen partaidetza osoa garantizatuko duen ekitaldi-erregimena ezarri beharra dago*. Alde batetik, gai-zerrendak guztiz esplizitua izan behar du eta Batzorde Nagusiak hartu beharko dituen akordioak oro deialdiaren gai-zerrendan azaldu beharko dute. Halaber, garrantzizkoa dirudi Batzorde Nagusiko kideei alde zuretik ekitaldiaren data jakinerazteak, deialdi horretako gai-zerrendan puntu batzu sartu ahal izan daitezen. Komenigarria litzateke orobat zerrenda-gaiei buruzko dokumentazioa eranstea, Diruzaintza-txostenak barne, Gipuzkoako Kultura Aldunak azken Batzorde Nagusian eskatu zuen bezala. Azkenik, Elkarteko dokumentazioak Batzorde Nagusiko kideen eskutara iristeko bidea erraztu beharko litzateke salbu eta beren ezaugarriengatik erreserbatuak diratekeen dokumentuei dagokienean, eta halako kasuetan adierazi beharko litzazkioke eskatzaileari elkartearen ikuspegitik erreserba hori premiazko egiten duten arrazoiak.

Hirugarrenik, beharrezkoa da *Batzorde Nagusiaren kontrola*

Junta Permanente se requiere la adopción de algunas medidas. En primer lugar *completar la institucionalización de la Junta*, lo que quizá conlleve la modificación del Reglamento. Es obvio, que es preciso reformar el Reglamento para dar entrada a una representación del Gobierno Vasco. Por otra parte parece conveniente la creación de una Vicepresidencia de Iparralde, como la tuvo Eusko Ikaskuntza en el primer momento de relanzamiento en 1978. Por último procede el nombramiento del Vicepresidente de la Diáspora contemplado en el Reglamento. La institucionalización se completaría con la integración de los nuevos Presidentes de las Secciones.

En segundo lugar procede establecer un *régimen de sesiones que garantice la plena participación de los miembros de la Junta Permanente*. En primer lugar es necesario que los órdenes del día sean explícitos y que todo acuerdo que deba adoptar la Junta Permanente figure en el orden del día de la convocatoria. Parece también importante comunicar a los miembros de la Junta Permanente con bastante antelación la fecha de celebración al objeto de que puedan remitir a la Presidencia la inclusión en la convocatoria de determinados puntos del día. Sería conveniente igualmente documentar los distintos puntos del día, incluyendo incluso los informes de Tesorería como lo solicitó la Diputada de Cultura de Gipuzkoa en la última sesión de la Junta Permanente. Por último es preciso facilitar a los miembros de la Junta Permanente el acceso a la documentación de la Sociedad excepto de aquellos documentos que posean un carácter reservado, en cuyo caso se debería manifestar al solicitante las razones de interés societario que hagan necesaria la reserva.

En tercer lugar es preciso *hacer efectivo el control de la propia Junta*

gauzatzea, Batzordeak berak hartutako akordioen betetzeari dagokionean. Lehendakariak adierazten du bilera guztietako gai-zerrendako bigarren puntuak, beti ere, Lehendakariak aurretik hartutako akordioen betetzeari buruzko informea izan beharko lukeela. Adierazten du, halaber, Batzorde Nagusiko kideek bilerak egin eta ondoko hamar egunen barne aktaren zirriborroa hartu beharko luketela.

Laugarrenik, Lehendakaria *Batzorde Tipiaren eta pertsona bakarreko organoen ihardueraren gainean Batzorde Nagusiak izan behar duen kontrola* izan du aipagai. Zentzu honetan, Batzorde Nagusiko kideek Batzorde Tipiko bileren deialdien kopia jasoko dute, modu honetara Araudiak aitortzen dien Batzorde Tipiko bileretara joateko eskubidea -hitzarekin baina botorik gabe- burutzeko aukera izango dute. Halaber, adierazten du Batzorde Tipiko bileraren Akta Batzorde Nagusiko kideei bidaliko zaiela bilera hori egin eta ondoko hamar egunen barne.

Bosgarrenik, *Elkartean nagusi izan behar duen elebitasunaren erregimena* aipatzen du. Hala Batzorde Nagusiko nola Batzorde Tipiko aktek elebidunak izan beharko dute eta Batzorde Nagusiko ekitaldietan bi hizkuntzen erabilera garantizatu beharra dago, euskaraz esku hartzen dutenei beren interbentzioak bi hizkuntzetan ez errepikatzeko baizik eta, gizalege soiluz eta hartara diglosia faboratzen bada ere, esandakoaren laburpen motza egin dezaten eskatuz.

Lehendakariak *organo kolektiboak bultzatu beharra* dagoela adierazten du partaidetza bideratu eta bermatzearren. Ildo beretik, idatziz jaso ez diren azken Batzar Nagusiaren aktak osatzeko premia ematen du aditzera, buruturiko

Permanente respecto de la ejecución de los acuerdos que adopte. Indica el Presidente que sería necesario que el segundo punto del orden del día de todas las reuniones consistiera en una información de Presidencia respecto de la ejecución de los acuerdos anteriores. Por otra parte indica que los miembros de la Junta Permanente deben recibir dentro de los diez días siguientes a la celebración de las reuniones el borrador del acta.

En cuarto lugar se refiere el Presidente al *control por la Junta Permanente de las actuaciones del Comité Ejecutivo y de los órganos unipersonales.* En ese sentido los miembros de la Junta Permanente recibirán una copia de las convocatorias de reunión del Comité Ejecutivo, recepción que les permitirá ejercitar el derecho que les reconoce el Reglamento de asistir a las reuniones del Comité Ejecutivo con voz pero sin voto. Da cuenta de que se enviará a los miembros de la Junta Permanente dentro de los diez días siguientes a la celebración del Comité Ejecutivo del acta de celebración del mismo.

En quinto lugar hace alusión al *régimen de bilingüismo que debe imperar en la Sociedad.* Las actas de la Junta Permanente y del Comité Ejecutivo serán bilingües y es preciso que en las sesiones de la Junta Permanente se garantice el empleo de las dos lenguas, con el ruego a los hablantes en euskera de que no dupliquen las intervenciones en ambas lenguas sino que, por cortesía y aunque ello favorezca la diglosia, efectúen un breve resumen de su intervención.

El Presidente indica que es preciso *potenciar los órganos colectivos para hacer posible y garantizar la participación.* En ese sentido hace ver que es preciso recomponer las actas de las últimas Juntas Generales, al objeto

egintza eta akordioek dituzketen formazko hutsak zuzentzearen. Komenigarria da, orobat, aurrerantzean Batzorde Tipiko bileretako aktak nahiaez idatziz jasotzea, hartarako aktaliburua eskuratu eta legeztatu beharko delarik.

Ondoren organo kolektiboen funtzionamendua ukitu du **partaidetzaren eta efikaziaren konbinazioa nabarmenduz**, kontuan hartu behar bait da efikazia-erizpideak nagusi ez izatera halako organoen funtzionamenduaren bidegarritasun eza. Hargatik, ekitaldietan ez da komeni aktak, txostenak edo idatziak irakurtzea, halakoak gai-zerrendarekin batean Batzorde Nagusiko kideei bidali ahal izanez gero. Debateak eta interbentzioak ordenatuak izango dira, txanda irekiak bideratuz baina interbentzioak laburtzera jotzen eta bikoizketak, erantzunak eta ihardespenak baztertuz. Lehendakariak gogoz jasoko ditu Batzorde Nagusiaren eta gainerako organo kolegiatueen funtzionamenduari buruz egin dakizkiokeen idarokizunak oro. Bukatzeko, Batzorde Nagusiarenganako begirunea molde praktikoa eta ez erretorikoa azaldu beharra dagoela dio.

Lehendakariaren Berri Ematea da gai-zerrendaren ondoko puntua. Bere kargu hartzearen kariaz hartutako gutun eta telegramen berri ematen du, Elkartearentzat interesgarri gerta daitezkeenak nabarmenduz, hala nola Euskal Autonomi Elkarteko eta Nafarroako Foru Kuomunitateko agintarienak, zeintzuk, bere ustetan, berari dagokion zeregina bete dezan guriarekin batera Eusko Ikaskuntzarekiko estimua adierazten duten. Alii Presidenteak eta Nafarroako Parlamentuko Presidenteak bidalitakoak

de subsanar los defectos de forma de que puedan adolecer los actos y acuerdos habidos, al no haberse recogido por escrito. Conviene también que en lo sucesivo se levante obligatoriamente acta de las reuniones del Comité Ejecutivo, adquiriendo y legalizando el correspondiente libro de actas.

Alude a continuación a la **combinación** en el funcionamiento de los órganos colectivos de los principios de **participación y eficacia**, contando con que no existe viabilidad en el funcionamiento de tales órganos si no rigen criterios de eficacia. Conviene por ello no dar lectura en las sesiones a actas, informes, escritos, en el caso de que puedan remitirse a los miembros de la Junta Permanente juntamente con el orden del día. Los debates e intervenciones deben ser ordenados, facilitando los turnos abiertos, pero limitando las intervenciones en el sentido de omitir dúplicas, réplicas y contrarréplicas. El Presidente se manifiesta deseoso de recibir cualquier sugerencia que se pueda realizar sobre el funcionamiento de la Junta Permanente y de los demás órganos colegiados. Como conclusión indica que el respeto a la Junta Permanente debe manifestarse de una manera práctica y no retórica.

Pasando al punto siguiente del orden del día, **Información del Presidente**, da cuenta de las cartas y telegramas recibidas con ocasión de la toma de posesión, destacando aquellas que pueden interesar a la Sociedad, como en concreto las de las autoridades de la Comunidad Autónoma Vasca y de la Comunidad Foral de Navarra que, entiendo, muestran un aprecio por Eusko Ikaskuntza y un deseo de que cumpla el papel que le corresponde. Destaca las recibidas del Presidente Alii y del Presidente del Parlamento de Navarra,

bereziki nabarmentzen ditu, are estimagarriagoak direnak non laroigarrenetako hamarkadaren hasieran denok ezagutzen ditugun arazoak izan bait ziren Foru Komunitatea eta Eusko Ikaskuntzaren arteko loturaren inguruan.

Ondoren, Ardanza Lehendakariarekin Gasteizen izandako elkarriketa labur baina mamitsuaren kontu ematen du, bertan Lehendakari jaunak Elkartearrekiko begirunea azaltzeaz gainera, Eusko Ikaskuntzaren halako esklerosi itxuragatik kezkatuta eta Elkartea berrabiatzeko planak entzuteko irekia agertu zen. Halaber, Joseba Arregi Kultura Kontseilariaren hitzen berri ematen du, Elkarreak bete beharko lukeen zereginaz gogoeta interesgarriak erabili bait zituen.

Geroago, bisita programaz mintzatu da. Programa honen barne Euskal Autonomi Komunitateko eta Nafarroako Foru Komunitateko agintari politikoak eta parlamentariak, hiru Aldundietako Lehendakariak, Unibertsitate guztietako errektoreak eta Batzorde honetan bertan dauden kideko instituzioak, bereziki Euskaltzaindia, aurrikusiak dira.

Bazkideei bidalitako Agur baten berri ematen du, bertan haien partaidetza egikorra Sailetan eta Eusko Ikaskuntzaren hobekuntzarako ekar ditzaketen ideia eta idarokizunak eskatzen dituelarik. Agur horretan Sailen eta beraietako Lehendakarien garrantzia azpimarratuko da, bai eta Elkarteko bazkideekin etengabeko komunikazioa ezartzeko nahia adieraziko. Hartarako Agiria erabiliko da, funtsean Lehendakaritza-organo gisa harturik, komunikazioa eta elkarrelazioa ziurtatzeko, eta komunikazio zuzena, Elkarteko lokaletan bazkideei zuzenduriko ordu bateko presentziaren bidez. Azkenik, aipaturiko Agur horretan Lehendakariak eta Lehendakariordeak

más estimables en cuanto que de todos son conocidos los problemas que existieron en los comienzos de la década de los ochenta respecto de la vinculación de la Comunidad Foral a Eusko Ikaskuntza.

Da cuenta de una entrevista rápida aunque sustanciosa habida en Vitoria con el Lehendakari Ardanza que manifestó su afecto por la Sociedad, una cierta preocupación por una imagen de esclerosis de Eusko Ikaskuntza, y su apertura a escuchar los planes de relanzamiento de la Sociedad. Igualmente de las palabras del Consejero de Cultura Joseba Arregui que formuló interesantes reflexiones sobre el papel que debe desempeñar la Sociedad.

Indica a continuación que existe un programa de visitas a las autoridades políticas y parlamentarias de la Comunidad Autónoma Vasca y de la Comunidad Foral de Navarra, a los tres Presidentes de las Diputaciones, a los rectores de todas las Universidades, y a las instituciones hermanas representadas en esta misma Junta, principalmente a Euskaltzaindia.

Da cuenta del envío de un saludo a los socios, solicitando su participación activa en las Secciones y las ideas y sugerencias que puedan aportar para la mejora de Eusko Ikaskuntza. Se destacará en dicho saludo la importancia de las Secciones y de sus Presidentes, y se manifestará un deseo de comunicación constante con los miembros de la Sociedad, a través del Boletín, concebido básicamente como un órgano de Presidencia que garantice la comunicación y la interrelación, y mediante una comunicación directa dando a conocer a los socios una hora determinada de presencia en locales de la Sociedad. Por último en el citado Saludo se dará a conocer que el

ondorio praktikoetarako Lehendakaritza kolegiatu gisa ihardungo dutela ematen da aditzera. Gerta daiteke Elkarateak oraingo Agiria baino komunikabide modernoago baten beharra izatea, Agiri hori komunikazio-maila formalago baterako mantendu beharko delarik.

Ihardun beharra dugun markoari dagozkion beste arazo garrantzitsu batzuri heldu aurretik, Lehendakariak **txosten bat eskatu diola Elkarteko Idazkariari** adierazten du. Berau kargua uzten duen Lehendakariak karguaz jabetzen denari egin beharko liokeen txostena da, gure kasuan burutu ez daitekeena. Txosten honetan Elkaratearen egoera orokorra eta beraren arazo garrantzitsuenak aztertuko dira, bai eta berauen jerarkizazioa eta hartzen ari diren soluzioak edota hartu beharrekoak. Txosten horrek erreferentzia funtsezkoenetariko bat izan beharko du Eusko Ikaskuntzaren egoerari buruzko diagnostikoa emateko orduan. Txosten horren edukia Batzorde Iraunkorreko kideei jakin araziko zaie. Lehendakariak egokiera honetaz baliatu nahi du Batzorde Nagusiko kideei Elkaratearen egoerari buruz ekar ditzaketen txostenak edo egin nahiko lituzketen azalpenak eskatzeko, bileran bertan agertu nahi lezaketenez kanpo.

Marko instituzionaleko arazoei dagokienez, lehen buruan Lehendakariak *Araudiaren arazoa* ukitu du, Elkaratearen betiko auzia eta bere instituzionalizazioari loturik dagoena, berriki Coro Cillán-Apalategui, Zuzenbide Saileko Lehendakariak buruturiko diktamen juridikoak agertarazi duenez. Jarraian adierazten duenez, aurreneko garaietan Elkaratearen markoa askoz bakunagoa zen; gaur egungo markoa, ordea, konplexuagoa gertatzen da kultur asoziazionismoaren alorreko konpetentziak -Iparraldean kontuan hartu

Presidente y los Vicepresidentes operarán a efectos prácticos como una Presidencia colegiada. Es probable que la Sociedad necesite de un soporte de comunicación más moderno que el actual Boletín, que debe mantenerse para un nivel de comunicación más formal.

Antes de entrar en otras importantes cuestiones respecto del marco en que nos debemos desenvolver, el Presidente indica que ha solicitado un informe del **Secretario de la Sociedad**. Es el informe que tendría que realizar un Presidente cesante al entrante, circunstancia no posible en nuestro caso. En dicho informe se producirá un análisis del estado general de la Sociedad y de sus problemas más importantes, de la jerarquización de los mismos, y de las soluciones en curso o a adoptar. Dicho informe debe constituir una de las referencias fundamentales a la hora de hacer un diagnóstico sobre el estado de Eusko Ikaskuntza. El contenido de dicho informe se comunicará a los miembros de la Junta Permanente. El Presidente aprovecha la oportunidad para solicitar de todos los miembros de la Junta Permanente cuantos informes puedan aportar o exposiciones quieran realizar sobre el estado de la Sociedad, con independencia de lo que en esta sesión deseen comunicar.

En lo que concierne a los **problemas del marco institucional**, el Presidente alude en primer lugar al *problema del Reglamento*, endémico en la Sociedad, y ligado a su propia institucionalización, como ha puesto de relieve un reciente dictamen jurídico elaborado por la Presidenta de la Sección de Derecho, Coro Cillán-Apalategui. Indica a continuación que el marco de la Sociedad en la primera época era notablemente más sencillo, en tanto que el marco actual se ha complicado al corresponder las competencias en

gabe- bi Autonomi Komunitateen esku bait daude. Elkartea problematika honetaz ondo jabeturik dago, aurtengo Otsailaren 14eko Batzorde Nagusiaren aktaren edukiak frogatzen duenez. Jakina denez, Sozietate Anonimoen Legeak xedaturikoa betetzearren 1982an Elkartea babesteko asmotan sorturiko Argitaletxearen deuseztapena erabaki da. Orain harturiko sozietate moldeak ez du Elkartearen sorrera ekarri zuen Hitzarmen historiko-instituzionala eguneratzeko premia alde batera uzten. Sozietatea bere osotasunean hartuko duen babes juridiko globala beharrezkoa da, eta zentzu horretan bai Gernikako Estatuluan eta bai Nafarroako Hobekuntzan jasoa den Hitzarmenaren figura erabiltzeko ahalbideak aztertu beharra dago.

Araudia arazo horren adierazpena dugu, eta maiz askotan Batzorde Nagusiko bileretan behin eta berrito azaldu den gaia. Begien bistakoa da 1979an berrizaturiko Araudiak eta ondoko erabaki eta arau osagarriak ez direla nahikoa gure egunotan. Litekeena da halako artikuluko konkektu bat berritu behar izatea eta, edozein modutan ere, Araudiko 17. artikuluko Batzorde Nagusiari ematen dizkion ahalmenak erabili beharko dira konpetentzia-banaketa gaur egungo eskariei moldatu ahal izateko. Lehendakariaren eritziz Araudia eta arau osagarriak argitaratzea noraezekoa da, hala kronologiaren arabera nola sistematikoki.

Gerorako ezin utzizko araudiaren puntu bat *Lehendakari-tza beraren instituzionalizazioa* da. Agintaldia ahalik eta arazo gutxiena ekarriz hastea kezka handia dela beretzat adierazten du. Lehendakariak aitortzen du Elkartea zuzentzeko merezimendurik ez duela,

materia de asociacionismo cultural a ambas Comunidades Autónomas, sin contar con Iparralde. La Sociedad es bien consciente de esta problemática, como lo acredita el contenido del acta de la Junta Permanente de 14 de Febrero de este año. Como es sabido, se ha optado por la disolución de la Editorial creada en 1982 para dar cobertura a la Sociedad, y por exigencias de la Ley de Sociedades Anónimas. La nueva forma societaria adoptada no excluye la necesidad de actualizar el Convenio histórico-institucional que dio lugar a la Sociedad. Es precisa una cobertura jurídica global al conjunto de la Sociedad, y en este sentido hay que explorar las posibilidades de utilización de la figura del Convenio contemplado tanto en el Estatuto de Gernika como en el Amejoramiento de Navarra.

El *Reglamento* constituye una expresión de este problema y ha sido a menudo un tema recurrente en las reuniones de la Junta Permanente. Es obvio que no basta en este momento el Reglamento reformado en 1979 y los acuerdos y normas complementarias posteriores. Es posible que haya que reformar algún artículo concreto, y en cualquier caso será preciso hacer uso de las facultades concedidas a la Junta Permanente en el artículo 17^a del Reglamento para adaptar la distribución competencial a las exigencias del momento presente. Considera el Presidente ineludible una publicación del Reglamento y de las normas complementarias, tanto en un orden cronológico como sistemático.

Uno de los puntos reglamentarios de tratamiento inaplazable es la *institucionalización de la propia Presidencia*. Indica que constituye una gran preocupación iniciar el mandato causando el menor número posible de problemas. Es consciente el Presidente

baina Lehendakariaren zereginak betetzera behartua aurkitzen dela bera hautatzean hori izan bait zen Batzorde Nagusiaren borondatea.

Azken urteetan zentzu batean bizi izandako *salbuespenezko egoera* aipatzen du eta ondorio gisa ekarri duen *pertsonabakarreko organoen funtzioen erregelamenduzko garapenik eza*, berau ezer baino areago egitatez gertatu delarik. Horrenbestez, komenigarria da egoera normaltzea lehen buruan Lehendakariaren figurari datxezkion kompetentziei eta funtzioei kasu eginez. Araudiak ez ditu Lehendakariaren funtzioak zehazten, ez eta gainerako pertsona bakarreko organoena ere, eta "ohizko" atribuzioez bakarrik mintzo da pertsona bakarreko organoez ari delarik; guzti hau kontuan harturik, hutsune hori Administrazio Prozeduraren Legeari, Asoziazio Legeari eta kultur asoziazioen ohizko iharduerari heltzea premiazkoa dugu.

Horrenbestez, datorren Batzorde Nagusian *Lehendakariaren funtzioen definizio* argia aurkezteko asmoa du, beroriek funtsean, honako hauek izango direlarik:

- Elkartearen zuzendaritza orokorra.
- Organo kolegiatuen zuzendaritza, honako hauen bidez gauzatua: deialdiaren eta gai-zerrendaren zehaztapena, ekitaldien Lehendakaritza eta zuzendaritza, aklen onespena eta organo kolegiatuek erabakitakoan exekuzioaren kontrolaren azken erantzukizuna.
- Pertsona bakarreko organoen zuzendaritza, Idazkariaren gestioa barne.
- Aurrekontuen exekuzioaren azken erantzukizuna, baimenen bidezko

de su carencia de méritos para la dirección de la Sociedad, pero indica que está obligado al pleno cumplimiento de sus deberes de Presidente en la medida en que esa fue la voluntad de la Junta General al elegirle.

Da cuenta de la *situación de excepcionalidad* vivida en determinado sentido en los últimos años y que ha llevado a que no se haya producido un *desarrollo reglamentario de las funciones de los órganos unipersonales*, que se ha producido más bien por vía de hecho. Conviene por tanto regularizar la situación atendiendo en primer lugar a las competencias y funciones inherentes a la figura del Presidente. Habida cuenta de que el Reglamento no indica cuáles son las funciones del Presidente ni las de los demás órganos unipersonales, y que únicamente habla de atribuciones "ordinarias" al referirse a todos los órganos unipersonales, es preciso llenar el vacío acudiendo a la Ley de Procedimiento Administrativo, a la Ley de Asociaciones, y a la práctica ordinaria de las asociaciones culturales.

Se propone por tanto presentar en la próxima Junta Permanente una clara *definición de las funciones del Presidente* que, fundamentalmente, serían las siguientes:

- dirección general de la Sociedad.
- dirección de sus órganos colegiados mediante la convocatoria y la definición del orden del día, la Presidencia y dirección de las sesiones, el visto bueno de las actas, y la responsabilidad última del control de ejecución de los acuerdos de los órganos colegiados.
- dirección de los órganos unipersonales, incluida la gestión del Secretario.
- responsabilidad última en la ejecución de los presupuestos con la

gastuaren interbentzioarekin eta hartarako behar diren ahalduntzeak burutuz.

– usko Ikaskuntzaren ordezkaritza legala eta instituzioen aurreko ordezkaritza.

Elkarteko Araudiak xedatzen duenez, *kargu guztien iharduera doakoa* izaki eta Eusko Ikaskuntzarekiko dedikazio eskusibozko erregimena ezinezkoa dela kontuan harturik, Lehendakariaren eritziz zama banatu beharra dago, Lehendakaritza kolegiatua ezarri eta *funtzioen banakuntza* *Lehendariordetzekin* burutu. Hurrengo Batzorde Nagusian Lehendakariordeen arteko funtzio-bereizketa - hala nola argitalpenak, Saitetako dinamizazioa, aurrekontu eta administrazio gaiak eta arazo juridikoak bezalako alorretan-burutzea proposatuko du. Bestalde, Elkarteko lokaletan egunero ihardungo duela adierazten du.

Gestio ekonomikoari dagokionean, azkeneko ikuskaritzaren emaitzak direla eta bere poza adierazi du, instituzioaren kontabilitate-erregulartasuna islatzen bait dute. Bere ustetan, nola nahi ere, helpileen eta xedeen arteko egokitzapenari buruzko azterketa beharrezkoa da eta bereziki Elkartean gastuaren osaketa egokia ote den arazoaren inguruan: egitura eta funtzionamendu-gastuen eta zientzia eta kulturari zuzendutakoenen artean, hau da, Sailen iharduera, argitalpenak, kongresuak, sinposioak, ihardunaldiak, ikastaroak, etab. Ildo beretik, helpileen eta xedeen arteko egokitzapena aztertuko duen eta aurrekontu-exekuziorako arau zehatzak ezar ditzan Batzorde bat premiazkotzat jotzen du. Lehendakariak dioenez, halako batzordea oraingo eta lehengo Diruzainek eta enpresa gestioan, administrazio publikoetako gestioan eta

intervención del gasto a través de autorizaciones para lo que procede los apoderamientos precisos.

– representación legal de Eusko Ikaskuntza y representación institucional.

Teniendo en cuenta que con arreglo al Reglamento de la Sociedad el *ejercicio de todos los cargos es gratuito* y que no es posible un regimen de exclusiva dedicación a Eusko Ikaskuntza, el Presidente entiende que es preciso distribuir la carga estableciendo una Presidencia colegiada con un *reparto de funciones con las Vicepresidencias*. Indica que propondrá la próxima Junta Permanente una especialización de funciones por Vicepresidentes atendiendo a áreas como publicaciones, dinamización de las Secciones, temas presupuestarios y administrativos, asuntos jurídicos. Por otra parte indica que tendrá una dedicación diaria en los locales de la Sociedad.

En lo que concierne a la *gestión económica* manifiesta su satisfacción por los resultados de la última auditoría, que reflejan una regularidad contable de la institución. Ahora bien, entiende que es preciso un estudio de la adecuación de fines a medios y en particular el de si en la Sociedad existe una adecuada composición del gasto entre los gastos de estructura y funcionamiento, y los científicos y culturales, es decir la actividad de las Secciones, las publicaciones, los congresos, simposios, jornadas, cursos, etc. En este sentido entiende que es necesaria una *Comisión* que estudie la adecuación económica de medios a fines y establezca unas normas claras de ejecución presupuestaria. Entiende el Presidente que la citada comisión podría estar compuesta por el Tesorero actual y el anterior y por personas con amplia experiencia en la gestión empresarial, en la gestión de las

kultur elkarteen gestioan esperientzia zabala duten pertsonak osatua izan beharko lukete.

Gestio ekonomikoaren kapitulu honen barne, Lehendakariaren ustetan, ahalegin handiagoak egin beharko genituzke baliabide ez ohizkoak erakartzen, dohaintzak, emaitzak eta esponsorizazioa sustatuz.

Baliabide pertsonalei dagokienean funtzioen eta erantzukizunen definizio zehatza egiteak beharrezkoa dirudi. Komenigarria litzateke, halaber, seinale guztien arabera egungo Elkarteko aktiborik garrantzitsuenetarikoa bat osatzen duen pertsonalaren lan-ahalmena areagotzea. Egoitza guztiak fax eta posta elektronikoaren bidez lotzea komenigarria litzateke, bai eta pertsonala teknika berrietan trebatzea ikastaldien egokien bidez. Testuinguru honetan premiazkoa litzateke pertsonalaren lan baldintzak berrikustea.

Lokalak aipagai harturik, Gipuzkoako egoitzak dituen arazo larriez kontu ematen du, berauek Lehendakariari eta lurralde historiko horretako Lehendakariordeari bertan ihardutea galarazten bait diete. Miramar-eko obretan gerta daitekeen atzerapena kontuan harturik, komenigarria litzateke behin behineko intenbideren bat bilatzea egoitza berrira pasa aurretik. Bestalde, ezagunak diren Euskal Herriko Historia Garaikideari buruzko Dokumentazio Zentruaren arazoak aipatzen ditu, kasu honetan ere agian behin behineko soluzio baten beharra izango delarik. Halaber, Nafarroan lokal ofizial bat aurkitzeko premiaz mintzatu da bai eta, Iparraldean antolatetari ekinez gero, lurralde horretan Elkarteko ihardueretarako toki baten beharra aipatu du.

Elkartearen indartze eta hedatzeari dagokionean, Elkartea zer izan den, zer den eta zer izan nahi duen bilduko lukeen azterlan zabal baten premia

administraciones públicas y de las asociaciones culturales.

Dentro de este capítulo de la gestión económica entiende que es preciso dar una mayor beiligerancia a la captación de recursos no ordinarios, fomentando las donaciones, legados y la esponsorización.

Por lo que concierne a los *Presidentes de Sección*, manifiesta el Presidente que se trata de clarificar las funciones que ya tienen atribuidas de manera más o menos imprecisa en desarrollos normativos efectuados por la Junta Permanente en años pasados. Las *normas de elección de los Presidentes de Sección* pretenden superar determinadas disfunciones que se observan en las mismas, y que fueron puestas de manifiesto por los mismos Presidentes de Sección en la reunión habida en San Sebastián el pasado día 2 de julio. En la citada reunión, tras un amplio intercambio de pareceres y opiniones se consensuaron los cambios que hoy se proponen a la normativa que fué aprobada el 24 de septiembre de 1988.

Bazkideen eskubide eta eginbeharrei dagokienean, Lehendakariak adierazten du berez estatutuei edo arautegiari zuzen loturiko gaia dela berau. Dena den, ez dirudi hurrengo Batzar Orokorrera arte itxoin beharra dagoela bazkideek antzeko elkarteetan ezagutzen zaizkien eskubideak izan ditzaten. Kontuan hartu behar da eskubide eta erantzunbeharren zerrenda gai honi buruz Lege autonomikoaren edukia erreproduzitzera mugatzen dela, edozein modutan ere estu bete beharra dagoena.

Lehendakariak 1979ko Eusko Ikaskuntzako Arautegiko 17. artikulua irakurtzen du, 1918ko Arautegiko arau bera hitzez-hitz erreproduzitzen duena: "Batzarde Nagusiaren gain gelditzen da Arautegiaren interpretazioa eta neurri eta erabaki osagarriak hartzea." Eskertu egiten dio Batzarde Nagusiari Lehendakariatzarengan izan duen konfiantza aurkezturiko testua mantentzerakoan, eta Francisco Etxeberria zuzenketagileari aurkezturiko zuzenketak testua nabarmenkiro hobetzen dutelako.

Ondoren José M^º Etxeberria Lejarragari ematen dio hitz egiteko txanda, beronek idatziz aurkeztuak dituen zenbait ohar Batzarde Nagusiaren aurrean adieraz ditzan, Sailetak bazkideei araudiari buruz kontsultatzeko denbora eskasaz, Sailen eta Elkartearen arteko lehentasun-galazketan zein organok erabaki behar duenez eta kargu berean bi agintaldi egoteko mugaketak beste karguetarako sarbidea galerazten duen.

Lehendakariak adierazten du arautegi-ahalmena Batzar Nagusiari dagokiola eta Arautegi horren interpretazioa eta garapena Batzarde Nagusiari, Sailak zientzi lanetarako gunea direlarik.

En lo que concierne a los *derechos y deberes de los socios*, indica el Presidente que de suyo se trata de materia directamente estatutaria o reglamentaria. Ahora bien no parece conveniente aguardar hasta una próxima Junta General para que los socios puedan ejercer los derechos que se les reconocen en sociedades análogas. Hay que tener en cuenta que la relación de derechos y deberes se limita a reproducir el contenido de la Ley autonómica en esta materia, que en cualquier caso sería de obligada observancia.

El Presidente da lectura al artículo 17 del Reglamento de Eusko Ikaskuntza de 1979, que reproduce literalmente el mismo precepto del Reglamento de 1918: "se encomienda a la Junta Permanente la interpretación del Reglamento y la adopción de medidas y acuerdos complementarios". Agradece a la Junta Permanente la confianza depositada en la Presidencia al haber mantenido el texto presentado, y al enmendante D. Francisco Etxeberria las enmiendas presentadas que mejoran ostensiblemente el texto.

Da a continuación la palabra a D. José M^º Etxebarria Lejarraga para que exponga a la Junta Permanente algunas observaciones que tiene presentadas por escrito respecto a la falta de tiempo para consultar sobre esta normativa a los miembros de las Secciones, respecto del órgano que debe decidir en los conflictos de prioridades de las Secciones y la Sociedad, y respecto a si la limitación de dos mandatos en el ejercicio del cargo impide el acceso a otros cargos.

Manifiesta el Presidente que la potestad reglamentaria está confiada a la Junta General y la de interpretación y desarrollo de dicho Reglamento a la Junta Permanente, en tanto que las Secciones son ámbitos para el trabajo científico.

Francisco Etxeberriaren zuzenketak zuzenbatu eta kokatzeari ekiten zaio.

- *Lehendakariaren funtzioak* izanburuko 1. Atalean honela geldituko litzateke: B) puntuua Batzar Nagusia, Batzorde Nagusia eta Batzorde Tipia deitu eta beraietako buru izatea, bai eta organo horien Aktei onespena ematea.

Modu horretara Etxeberria jaunak aurkezturiko k) eta h) zuzenketa partzialak biltzen dira.

- *Idazkariaren funtzioak* izanburuko 3. Atalean, Etxeberriak proposaturiko a) aldaketa alde batera uzten da, Lehendakariaren argibidearen ondoren.

- *Saileko Lehendakariak* izanburuko V. Atalean. Testuari erasteko den c) zuzenketa onartzen. Honela dio: "Sailaren ibilerari dagozkion bileretara deitzea, eguneko Gai-zerrenda adieraziz."

- *Bazkideen eskubide eta erantzun beharrak* izanburuko III. Atalean. Eztabaida baten ondoren Etxeberria jaunak berak erretiratzen ditu idazketa desberdinetan aurkezturiko zuzenketak.

- *Saileko Lehendakariak aukeratzeko arauak* izanburuko IV. Atalean eta 1. puntuari. Lehen paragrafoaren azken idazketa onartzen da: "Ondoz-ondoko bi agintaldi dira Saileko Lehendakariaren karguan gehien iraun daitekeena".

- IV. Ataleko 2. puntuari. Etxeberria jaunak erasteko zuzen proposamena erretiratzen da, Saileko Lehendakariaren Bileran eztabaidatua zelako eta bazkideen funtsezko eskubideak moztu bide dituelako.

Zuzenketak eztabaidatzeko eta botoetara jartzeko txanda ahitirik, Lehendakariak testu osoaren botazioa proposatzen du, ondoko emaitza honekin:

Se procede a numerar y situar las enmiendas de D. Francisco Etxebarria.

- En el Apartado 1.- *De las funciones del Presidente* quedaría así: el punto B) Convocar y presidir la Junta General, la Junta Permanente y el Comité Ejecutivo, y dar el visto bueno de las Actas de dichos órganos.

De esta manera se refunden las enmiendas parciales presentadas k y h por el Sr. Etxeberria.

- En el Apartado 3.- *De las funciones del Secretario*. La modificación a) propuesta por Etxeberria es retirada tras una aclaración del Presidente.

- En el Apartado 5.- *De los Presidentes de Sección*. Se acepta la enmienda c) de adición al texto que dice: "Convocar las reuniones correspondientes a la marcha de la Sección con indicación del Orden del día".

- En el Apartado III.- *De los derechos y deberes de los socios*, y las enmiendas a suprimir presentadas en diversas redacciones al texto son retiradas por el propio Sr. Etxeberria tras un debate.

- En el Apartado IV.- *Normas de elección de los Presidentes de Sección* y en el punto 1.- Se acepta la nueva redacción del final del primer párrafo: "El periodo de máxima permanencia en el cargo de Presidente de Sección será de dos mandatos consecutivos".

- En el Apartado IV. punto 2.- La propuesta de adición del Sr. Etxeberria es retirada por considerar que ya ha sido debatida en la Reunión de Presidentes de Sección y que parece cercana derechos fundamentales de los socios.

Agotado el turno de debate y votación de las enmiendas el Presidente propone la votación de todo el texto, que arroja el siguiente resultado

baiezko botoak	17
ezezko botoak	1
boto zuriak	6

Horrenbestez, Arautegiko Neurri eta erabaki osagarriak onarturik geratzen dira, ondoren azatzen den moduan:

1979ko Maiatzaren 26an Gasteizen buruturiko Eusko Ikaskuntzaren Batzar Nagusiak, bere eraketazko eta erregelamenduzko ahalmenaz baliaturik, Arautegi berria eman zion elkarteari. Gerra Zibil aurrekoa zen Arautegiarekiko aldaketak txikiak izan ziren eta sorrerako helburuak zehazten zituen lehen artikulua errespetatu egin zen. 1979ko Arautegi horretan 17. artikulua garrantzi berezia du: "Batzarde Nagusiak erabakiko du Arautegi honen interpretazioaz edozein momentutan gerta litezkeen zalantzak eta premiazkoak diratekeen Estatutuen erabaki osagarriak hartuko ditu".

Batzorde Nagusiak Arautegiko 17. artikuluan jasotako interpretazio eta erabaki osagarriak hartzeko ahalmenak gauzatu ditu zenbait aldiz. Hala, 1981eko Martxoaren 14an Bilbon izandako bileran Batzarde Nagusiak Arautegiko Neurri eta erabaki osagarriak hartu zituen, zeinetan aurrekari historikoak eta Elkartearen Helburua aipatu ondoren beraren Antolaketa eta Organizazioari dagozkien erabaki multzo zabala gauzatu zuen. 1983ko Uztailaren 23an, On Jose Migel Barandiaran buru zela ez-ohizko ekitaldia burutu zen; bertan goian aipaturiko organo kolegiatuak Lehendakari eta Lehendakariordeak aukeratzeko araudi osagarria erabaki zuen. Modu horretara, beste zenbait aldiz erabaki osagarri puntualak gauzatu dira, Batzarde Nagusiko aktetan bildurik eta Agirian behar bezala argitaraturik daudelarik.

votos afirmativos	17
votos negativos	1
votos en blanco	6

Quedan por tanto aprobadas las **Medidas y acuerdos complementarios al Reglamento** que se reproducen a continuación:

"El 26 de mayo de 1979 la Junta General de Eusko Ikaskuntza, celebrada en Vitoria/Gasteiz, en uso de su capacidad constituyente y reglamentaria, dotó a la Sociedad de un nuevo Reglamento. Las modificaciones respecto del Reglamento anterior a la Guerra Civil fueron pequeñas y se respetó el artículo primero que define los objetivos fundacionales. En el citado Reglamento de 1979 tiene una importancia singular el artículo 17º que indica que "la Junta Permanente resolverá en cualquier momento las dudas que se presenten en la interpretación de este Reglamento y adoptará los acuerdos complementarios a los Estatutos que sean precisos".

La Junta Permanente ha ejercitado en distintas ocasiones las facultades de interpretación y adopción de acuerdos complementarios recogidas en el artículo 17º del Reglamento. Así en la reunión celebrada en Bilbao el 14 de marzo de 1981, la Junta Permanente adoptó unas **Medidas y acuerdos complementarios al Reglamento**, en las que tras aludir a los Antedecentes históricos y al Objeto de la Sociedad, instrumentó un amplio repertorio de acuerdos referentes a la Organización y al Funcionamiento de la Sociedad. El 23 de julio de 1983, en sesión extraordinaria presidida por D. José Miguel de Barandiarán, el citado órgano colegiado estableció una normativa complementaria para la elección de Presidente y Vicepresidentes. De la misma manera en otras ocasiones se han producido acuerdos complementarios puntuales que se hallan recogidos en las actas de

Agerikoa denez hartutako erabaki eta neurri osagarrietariko askok Lehendakaritzak ihardun behar zuen zirkunstantzia berezietan dute oinarri, aparteko merezimenduen jabe zen pertsona baten esku zegoena baina, adinean sartua izanik, egunero Elkarteko arazoez arduratu ezin zena. Hutsune hori hainbat bide eta prozeduraren bidez bete egin zen, baina edozein modutan ere gaur arte ez da Lehendakaritzaren eta Lehendakariordetzen funtzioen arauketa garbia gauzatu, arauketa-akats hau Elkarteko beste pertsona bakarreko organoetan ere nabari delarik. Kargu bakoitzaren erantzukizun-eremuaren zehaztasun ezak dagozkien eginbeharrak eta obligazioak zuzen betetzea oztopatzen du eta hautaturiko karguek Elkarteko Batzorde Nagusiaren eta Erantzun Nagusiaren aurrean erantzun beharreko arazoak garbi mugatzen galarazten du.

Karguen ardura eta erantzukizun-eremua zehazterakoan, Arautegia guztiz motz agertzen dela esan behar: 11. artikulua besterik gabe honela dio: "Lehendakari, Lehendakariorde, Diruzain, Diruzainorde, Idazkari, Idazkariorde eta Bokalek kargu hauetan ohizkoak diren ahalmenak dituzte, kargu guztiok doakoak eta berriztatu beharrekoak direlarik. Egia da 8. artikulua, Lehendakariaren diharduena, eta 6.ak, Lehendakariordearen diharduena, zenbait ahalmen zehazten dituztela, baina nola nahi den Arautegiak Batzorde Nagusiaren esku uzten du "ohizko" ahalmenak kontzeptuaren edukia garatzea. Horrenbestez eta funtzionalitate-irizpideak zein Eusko Ikaskuntzaren antzeko erakunde soziokulturaletan buruturiko praktika

la Junta Permanente, debidamente publicadas en el Boletín.

Es evidente que muchos de los acuerdos y medidas complementarias adoptadas estaban fundamentadas en las particulares circunstancias en que se desenvolvía la Presidencia, desempeñada por una persona de excepcionales méritos pero que por su avanzada edad no podía concurrir a diario al despacho de los asuntos de la Sociedad. El vacío fué cubierto por distintos expedientes y procedimientos, pero en cualquier caso no se ha procedido hasta el momento a una regulación explícita de las funciones de la Presidencia y de las Vicepresidencias, defecto de regulación del que también adolecen los demás cargos unipersonales de la Sociedad. La indefinición del ámbito de responsabilidad de cada cargo dificulta el cumplimiento de los deberes y de las obligaciones inherentes e impide delimitar las cuestiones respecto de las que los cargos electivos deben responder ante la Junta Permanente y la Junta General de la Sociedad.

A la hora de definir el ámbito de competencia y responsabilidad de los cargos hay que indicar que el Reglamento es muy parco al respecto: el artículo 11º indica simplemente que "las atribuciones del Presidente, Vicepresidente, Tesorero, Vicesorero, Secretario, Vicesecretario y Vocales, serán las ordinarias de estos cargos, siendo todos ellos *gratuitos y renovables*". Es cierto que los artículos 8º, respecto del Presidente, y el 6º, en cuanto a los Vicepresidentes, detallan algunas facultades, pero en cualquier caso el Reglamento confía a la Junta Permanente la función de desarrollar el contenido del concepto de atribuciones "ordinarias". Es evidente por tanto que es preciso definir, teniendo en cuenta criterios de funcionalidad y la práctica

kontuan harturik, agerikoa da pertsona bakarrek organoen egitekoa zehaztu beharra dagoela.

Bestalde, Elkarrearen dinamizazioa ezin daiteke pentsatu bazkideen partaidetzarik handiena lortu gabe. Egia da partaidetza hori ez beti formazizatuak diren hainbat bide erabiliz lortu beharra dagoela, baina hala ere Arautegiko 14. artikulua dioena edukiaz hornituz hastea ezinbestekoa dirudi: "bazkideen eskubideak antzeko Elkarrearen Nagusirak direnak izango dira".

Kontuan hartu beharra dago, hirugarrenik, Saitetako Lehendakariari dagokien eginkizun garrantzitsua. Eusko Ikaskuntza bere burua azkartu eta hedatzea planteatzen ari denean Saitetako Lehendakariaren funtzioak zehaztea bidezkoa dirudi, bai eta beraiek hautatzeko betebeharrak arindu eta erraztea, modu horretara pertsonarik koalifikatuena Eusko Ikaskuntzaren zientzi ihardueraren barnean sartzea laboratuakoa bait da. Saitetako Lehendakariak, hartarako egindako bileran, Batzorde Nagusira 1988ko Irailaren 24ean Iruñan egindako bileran onarturiko araudia aztertu dute eta araudi honetan jasotako aldaketan sarrera iradoki dute.

Goian esandako arrazoiengatik, Batzorde Nagusiak, Donostian 1992ko Uztailaren 17an buruturiko ez-ohizko bileran, Arautegiari ondoko erabaki eta neurri osagarriak erastea ebatzi du:

I.- Baliogabetzen dira Bilbon 1981eko Martxoaren 14ean buruturiko Batzorde Nagusian onartutako Arautegiko Neurri eta erabaki osagarriak, baldin eta ekitaldi

observada en instituciones socioculturales de carácter análogo a Eusko Ikaskuntza, el papel que han de desempeñar los órganos unipersonales.

Por otra parte no puede concebirse la dinamización de la Sociedad sin conseguir la **máxima participación de los socios**. Si bien es cierto que la citada participación debe conseguirse por procedimientos diversos no siempre formalizados, parece imprescindible empezar dotando de contenido a lo indicado en el artículo 14º del Reglamento que indica que "los derechos de los socios serán los generales de las Sociedades análogas".

Hay que tener en cuenta en tercer lugar el importante papel que corresponde desempeñar a los Presidentes de Sección. En un momento en que Eusko Ikaskuntza se plantea su revitalización y expansión parece procedente **definir las funciones de los Presidentes de Sección y simplificar y aligerar los requisitos de elección de los mismos**, al objeto de favorecer la integración en la actividad científica de Eusko Ikaskuntza de las personas más cualificadas. Los Presidentes de Sección, en una reunión celebrada al efecto, han examinado la normativa aprobada por la Junta Permanente en la reunión celebrada en Iruña el 24 de septiembre de 1988, y han sugerido la introducción de las modificaciones que se recogen en la presente normativa.

Por las razones antecedentes, la Junta Permanente extraordinaria reunida en Donostia/San Sebastián el 17 de julio de 1992, resuelve adoptar los siguientes **acuerdos y medidas complementarias al Reglamento**.

I.- Quedan *derogados* las normas correspondientes de aquellas **Medidas y acuerdos complementarios al Reglamento** aprobados en la Junta

honetan onarturiko neurri eta erabakiei kontrajartzen bazaizkie.

II.- Pertsona bakarreko organoei dagozkien funtzioak honako molde honetara definitzen dira:

1.- Lehendakariaren funtzioak.

Eusko Ikaskuntzako Lehendakariari honako funtzioak dagozkio:

a) Elkartea legal eta juridikoki ordezkatzea.

b) Batzar Nagusira, Batzorde Nagusia eta Batzorde Tipia deitu eta bileretako akten onespena ematea.

c) Batzar Nagusireko eta Batzorde Nagusiko orientabideak garatzea eta aplikatzea eta erabakiak beteratzea, organo horiek bere gestioaz informatuak izango ditu eta erantzukizuna izango du beraien aurrean.

d) Tituluak eta ziurtagiriak Eusko Ikaskuntzaren izenean luzatzea.

e) Pertsonala kontratatzea eta, azken buruan, Elkarre barneko lan-ihardueraren egokitasunaz ardura hartzea, bai eta disziplina-erregimenaz, Batzorde Nagusiari gai honi dagozkion arazoez etengabe berri emanez.

f) Saitetako Lehendakariaren eta pertsona bakarreko organoetako izendapenak erregularitasunez burutu daitezen zaintzea.

g) Bekadunak izendatzea eta proiektuak egin behar direneko denbortartean gerta daitezkeen gorabeherak erabakitzea, Batzorde Nagusiari hartaz jakinaren gainean jarritz.

h) Batzorde Nagusiaren aurrean Biurteko Txostenaren elaborazioaz, Agiriaren argitarapenez eta Elkarre

Permanente celebrada en Bilbao el 14 de marzo de 1981, que estén en contradicción con las medidas y acuerdos aprobados en esta sesión.

II.- Las funciones correspondientes a los órganos unipersonales quedan definidas de la siguiente manera

1.- De las funciones del Presidente.

Corresponden al Presidente de Eusko Ikaskuntza las siguientes funciones:

a) representar legal y jurídicamente a la Sociedad.

b) convocar y presidir la Junta General, la Junta Permanente y el Comité Ejecutivo y dar el visto bueno a las actas de las reuniones.

c) desarrollar y aplicar las directrices y ejecutar los acuerdos de la Junta General y de la Junta Permanente, a la que tendrá informada de su gestión, y ante las cuales será responsable.

d) expedir en nombre de Eusko Ikaskuntza, los títulos y certificaciones.

e) contratar al personal y responder en último término de la idoneidad de la actividad laboral de la Sociedad, así como del régimen disciplinario, informando permanentemente a la Junta Permanente de las cuestiones relacionadas con esta materia.

f) vigilar por la regularidad de los nombramientos de los Presidentes de las Secciones y de los órganos unipersonales, dando cuenta a la Junta Permanente.

g) nombrar a los becarios y resolver las incidencias que se presenten en el tiempo de realización de los proyectos, dando cuenta a la Junta Permanente.

h) responder ante la Junta Permanente de la elaboración de la Memoria bianual, de la publicación del

argitara eman litzakeen agerkari berri-maileez ardura izatea.

i) Elkarteko Aurrekontuaren proiektua eta kontu Nagusiraren prestaketa zuzentzea.

j) Gastuak egiteko baimena ematea eta ordainketak agintzea, onarturiko Aurrekontua burutuz.

Lehendakariak, orobat, legeriak, Arautegiak eta garapen-arauek bere gain jartzen dituzten gainerako funtzioak burutuko ditu.

2.- Lehendakariordeen funtzioak

Lehendakariordeei honako funtzio hauek dagozkie:

a) Arautegiko 6. artikulua dakarrenaren arabera, Lehendakariordeak Eusko Ikaskuntzaren lurraldeetako Ordezkaritza-buru dira eta berauek antolatzen dituzte.

b) Lehendakariordeek dagokien lurraldean sortzen diren arazoak aztertuko dituzte, hartarako ahalmenak dituzten gaietan behar diren erabakiak hartuz edo Eusko Ikaskuntzako gobernu-organo Nagusiretara bideratuz.

c) Lehendakariordeek lurraldeko erakunde publikoekiko ohizko harremanak mantenduko dituzte.

d) Lurraldeetako Lehendakariordeek Lehendakariari laguntzen diote bere ihardueran eta Lehendakariaren ordezkaritza dira lurralde bakoitzean.

e) Lehendakariari dagokie Lehendakariak gomendaturiko egintzak zuzentzea eta koordinatzea, haren aurrean egindako gestioen arduradunak izango direlarik.

Boletín y de las publicaciones informativas que pueda editar la Sociedad.

i) dirigir la confección del proyecto de Presupuesto y de la cuenta general de la Sociedad.

j) Autorizar el gasto y ordenar los pagos, ejecutando el Presupuesto aprobado.

El Presidente ejercerá además las restantes funciones que le encomienden la legislación, el Reglamento y sus normas de desarrollo.

2.- De las funciones de los Vicepresidentes.

Corresponden a los Vicepresidentes las siguientes funciones:

a) de conformidad con lo indicado en el art. 6º del Reglamento, los Vicepresidentes presiden y organizan las Delegaciones de Eusko Ikaskuntza en los territorios.

b) los Vicepresidentes estudiarán los problemas suscitados en el territorio correspondiente, adoptando las resoluciones pertinentes sobre las cuestiones para las que estuvieran facultados o encauzándolas hacia los órganos de gobierno generales de Eusko Ikaskuntza.

c) los Vicepresidentes mantendrán la relación ordinaria con las entidades públicas del territorio.

d) los Vicepresidentes territoriales asisten al Presidente en el ejercicio de sus funciones, y son los representantes permanentes del Presidente en cada uno de los territorios.

e) corresponde a los Vicepresidentes dirigir y coordinar las actividades que les encomiende el Presidente, respondiendo ante el mismo de las gestiones realizadas.

3.- Idazkariaren funtzioak

Idazkariak honako funtzio hauek izango ditu:

a) Batzar Nagusi, Batzorde Iraunkor eta Batzorde Tipiko akta eta erabaki-liburuen prestaketa eta zaintza bere gain hartzen du, bai eta Idazkari kondizioan gertatuko litzatekeen ekintza edo egitate guztiena edo Eusko Ikaskuntzaren dokumentazioan jasoa dena.

b) Eusko Ikaskuntzak harturiko erabaki guztien publizitatea bermatzen du.

c) Elkarteko artxibo Nagusira zaintzen du.

d) Eusko Ikaskuntzaren ekitaldi solemneen antolaketaz eta protokoloa betetzeaz arduratzen da.

e) Indarreango legeriak eta Elkarteko Arautegiak gomendatzen dizkien funtzioak betetzen ditu.

4.- Idazkari Gestioileak

1.- Idazkari Gestioileak Batzorde Nagusiak izendatua izango da eta ezin izango du Elkartearen hautapenezko kargurik beretu. Karguaren iharduera dedikazio osoko erregimenean.

2.- Gestio ekonomiko-administratiboa eta Eusko Ikaskuntzaren pertsonalarena, beti ere Lehendakariaren menpean den Idazkari Gestioileari dagokio.

5.- Sailetako Lehendakariak

Saileko Lehendakariak honako funtzio hauek betetzen ditu:

a) Saileko bileretarako deialdiak egitea, eguneko gai-zerrenda adieraziz.

b) Saileko lan-egitasmoa garatzea, Sailak berak eraturiko lan-organismoen laguntzaz.

c) Lan-egitasmoaren eta beraren exekuzioaren berri ematen die Saileko

3.- De las funciones del Secretario.

El Secretario tiene las siguientes funciones:

a) cuida de la formación y custodia los libros de actas y acuerdos de la Junta General, de la Junta Permanente y del Comité Ejecutivo y de cuantos actos o hechos presencia en su condición de Secretario o consten en la documentación de Eusko Ikaskuntza.

b) garantiza la publicidad de todos los acuerdos de Eusko Ikaskuntza.

c) custodia el archivo general de la Sociedad.

d) cuida de la organización de los actos solemnes de Eusko Ikaskuntza y del cumplimiento del protocolo.

e) desempeña cuantas funciones le encomiende la legislación vigente y el Reglamento de la Sociedad.

4.- Del Secretario Gestor.

1.- El Secretario Gestor será nombrado por la Junta Permanente, y no podrá ostentar cargos electivos de la Sociedad. El desempeño del cargo se efectuará en régimen de dedicación exclusiva.

2.- Corresponde al Secretario Gestor, bajo la dependencia del Presidente, la gestión económico-administrativa y del personal de Eusko Ikaskuntza.

5.- De los Presidentes de Sección.

El Presidente de Sección tiene las siguientes funciones:

a) convoca las reuniones de la Sección con indicación del orden del día.

b) desarrolla el plan de trabajo de la Sección, auxiliado por los órganos de trabajo que constituya la propia Sección.

c) informa a los órganos de coordinación de las Secciones y a la

koordinazio-organoei eta Batzorde Nagusiari.

d) Gastuen aurrekontua betetzen du, Elkartearen pertsona bakarreko organoekin lankidetzan, berauek gastuaren erantzukizuna bait dute.

e) Pertsonalki edo ordezkaritzaren bidez Batzorde Nagusiko bileretara joaten da hitzez eta botoz eta, nahi duelarik, Batzorde Tipietara hitzez baina botorik gabe.

III.- Bazkideen eskubide eta betebeharrak

Eusko Ikaskuntzako bazkideek honako eskubideok izango dituzte:

a) Bazkide guztiek Eusko Ikaskuntzako gainerako bazkideen nortasuna, kontuen egoera eta Elkartearen iharduera ezagutzeko eskubidea dute.

b) Bazkide guztiek zuzendaritza-organoetan esku hartzeko eskubidea dute erregelamenduzko bideei jarraiki.

c) Eusko Ikaskuntzako bazkideek entzunak izateko eskubidea izango dute beraien kontrako disziplinazko neurriak hartuak izan aurretik. Zigorren ezarpena beti ere modu erregularrez tramitaturiko espediente baten ondoren gertatuko da eta berak ekarria izango da.

d) Eusko Ikaskuntzako organoek harturiko erabakiak ezein bazkidek aurkatuak izan daitezke, halakoak Lege edo Arautegiaren kontrakoak eritiz gero, jurisdikzio zibil arruntaren aurrean. Ekintza judiziala berrogei egun naturaleta iraungiko da, uzi-jartzaileak aurkaturiko erabakia jakin edo jakiteko aukera izan zuen egunetik kontatuak. Guzti hori agizko erantzunbehar penaletatik aparte.

Eskubide hauen eraginkortasunaren berme gisa, bai eta Eusko

Junta Permanente respecto del plan de trabajo y de la ejecución del mismo.

d) ejecuta el presupuesto de gastos, en comunicación con los órganos unipersonales de la Sociedad responsables del gasto.

e) asiste personalmente o por representación a las reuniones de la Junta Permanente con voz y voto, y facultativamente a las reuniones del Comité Ejecutivo con voz pero sin voto.

III. De los derechos y deberes de los socios.

Los socios de Eusko Ikaskuntza tendrán los siguientes derechos:

a) todo socio tiene derecho a conocer en cualquier momento la identidad de los demás miembros de Eusko Ikaskuntza, y el estado de cuentas y la actividad de la misma.

b) todo socio tiene derecho a participar en los órganos de dirección siguiendo los cauces reglamentarios.

c) los miembros de Eusko Ikaskuntza tendrán derecho a ser oídos, con carácter previo a la adopción de medidas disciplinarias contra ellos. La aplicación de sanciones será siempre motivada y precedida de un expediente tramitado de manera regular.

d) los acuerdos de los órganos de Eusko Ikaskuntza podrán ser impugnados por cualquier socio, si los estimase contrarios a la Ley o al Reglamento, ante la jurisdicción civil ordinaria. La acción caducará a los cuarenta días naturales, contados a partir de aquél en que el demandante hubiera conocido o tenido oportunidad de conocer el contenido del acuerdo impugnado. Todo ello con independencia de eventuales responsabilidades penales.

Como garantía de la efectividad de estos derechos y de los terceros que

Ikaskuntzarekin harremanetan jartzen diren hirugarrenena ere, Elkartek bazkideen erregistro liburua, Batzar Nagusi, Batzorde Iraunkor eta Batzorde Tipien bileren akta—liburua eta kontu-liburua izango ditu, legearen araberakoak guztiak.

Eusko Ikaskuntzako bazkideek honako betebeharrak dituzte:

a) Elkartearen helburuak lortzeko partaidetza eginkorra ekartzea.

b) Gastuei eusten laguntzea, Arautegiko 13. artikuluan esandakoaren arabera ezarritako kuotaren ordainketaren bidez.

c) Eusko Ikaskuntzako gobernu-organoek balotasunez harturiko erabakiak onartu eta betetzea.

IV. Saileko Lehendakariak hautatzeko arauak

1.- Lau urteko agintaldia amaiturik, Saileko Lehendakariak, edo, haren faltan, Elkarteko pertsona bakarreko organo egokiak bidezko tramiteak burutzeari ekingo dio, halako kargua berritzeko edo berrautatzeko prozedura abiaraziz. Ondoz-ondoko bi agintaldi dira Saileko Lehendakariaren karguan gehien iraun daitekeena.

Lau urteko aldia iraungi aurretik Sail bateko Lehendakariaren kargu-uztea gertatzez gero, hartarako arrazoia edozein delarik ere, Elkarteko pertsona bakarreko organoek bidezko tramiteak abiaraziko dituzte ofizioz, Saileko Lehendakariaren hautaketa-prozedurari hasiera ematearren.

Sail batean, bertako Lehendakariak bere eginbeharretan larriki hutsegin ondoren, ihardueren blokeoa gertatuko balitz, Batzorde Nagusiak Lehendakari berria hautatzeko deialdiari ekin

entablan relaciones con Eusko Ikaskuntza, la Sociedad llevará un libro registro de socios, libro de actas de las reuniones de la Junta General, de la Junta Permanente y del Comité Ejecutivo, y un libro de cuentas, legalmente habilitados.

Los socios de Eusko Ikaskuntza se hallan **obligados por los siguientes deberes:**

a) prestar su concurso activo para la consecución de los fines de la Sociedad.

b) contribuir al sostenimientos de los gastos mediante el pago de la cuota establecida, de conformidad con lo indicado en el art. 13º b. del Reglamento.

c) acatar y cumplir los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de gobierno de Eusko Ikaskuntza.

IV. Normas de elección de los Presidentes de Sección.

1.- Cumplido el plazo de mandato de cuatro años, el Presidente de la Sección, o en su defecto el correspondiente órgano unipersonal de la Sociedad, iniciarán los trámites oportunos para poner en marcha el proceso de renovación o reelección de dicho cargo. El período de máxima permanencia en el cargo del Presidente de Sección será de dos mandatos consecutivos.

En el supuesto de que antes de expirar el plazo de cuatro años se produjera el cese del Presidente de una Sección, sea cual fuere su causa, los órganos unipersonales de la Sociedad iniciarán de oficio los trámites oportunos para el inicio del proceso de elección de Presidente de Sección.

En el caso de que en una determinada Sección se produjera un bloqueo de sus actividades por incumplimiento grave de las obligaciones del Presidente de Sección, la Junta

diezaioke, hartarako ekitaldian izango diren Batzorde Nagusiko bazkideen bi herenak, behar bezala arrazoitu ondoren, harturiko akordio bat dela medio.

2.- Lehendakariaren hautapena hartarako iritelen den Lehendakariak edo dagokion pertsona bakarreko organoak deituriko bileran burutuko da, arau hauetako I. puntuan adierazitako prozeduraren arabera.

3.- Dagokion Saileko Eusko Ikaskuntzako bazkideek boto- - eskubidea izango dute, honako baldintza hauek betetzen badituzte: bazkide arrunta izatea, kuoten ordainketan eguneratua izatea eta hautapena egiten deneko Sailean gutxienez urte beteko antzintasuna izatea.

4.- Hautagaiak izan daitezke soilki boto-eskubidea duten Eusko Ikaskuntzako bazkideek, baldintza hauek bildu eta betetzen badituzte:

a) bazkide arrunta izatea, dagokion Sailean gutxienez bi urteko antzintasuna duelarik.

b) Saileko helburuarekin lotua den kultura eta zientzia alorreko disziplinaren batean entzute onartua izatea.

c) Curriculum vitae delakoa Elkarteko Idazkaritzan aurkeztea, hautatua izanez gero Sailean garatu nahi duen lan—egitasmoarekin batean.

5.- Hautagai-zerrendak Elkarteko Idazkaritzan aurkeztuko dira, dela interesatuak berak, dela dagokion Sailean boto- -eskubidea duten hiru bazkidek aurkeztuak, hautagai-zerrenda horiek onartu beharko diren Batzorde Nagusiko bilera burutu baino hilabete bat lehenago gutxienez.

Permanente podrá proceder a la convocatoria de elección de nuevo Presidente mediante acuerdo, debidamente motivado, de las dos terceras partes de los miembros de la Junta Permanente presentes en la sesión.

2.- La elección de Presidente se efectuará en la reunión convocada al efecto por el Presidente saliente o por el correspondiente órgano unipersonal de la Sociedad, de conformidad con el proceso a que se refiere el punto número 1 de estas normas.

3.- Tendrán derecho a voto los socios de Eusko Ikaskuntza, miembros de la Sección de que se trate, que reúnan la condición de socios de número, estén al corriente en el pago de las cuotas, y dispongan de una antigüedad mínima de un año en la Sección en la que se efectúa la elección.

4.- Solamente podrán ser designados candidatos los socios de Eusko Ikaskuntza con derecho a voto que reúnan y cumplan, además, las siguientes condiciones:

a) ser socio de número con una antigüedad mínima de dos años en la Sección correspondiente.

b) ser persona de reconocido prestigio cultural-científico en alguna disciplina conexas con el objeto de la Sección de que se trate.

c) presentar por escrito en la Secretaría de la Sociedad el curriculum vitae y el programa de trabajo que se proponga desarrollar en la Sección en el caso de resultar elegido.

5.- Las candidaturas se presentarán en la Secretaría de la Sociedad, bien por el propio interesado, bien por tres miembros de la Sección correspondiente con derecho a voto, al menos un mes antes de la celebración de la Junta Permanente que haya de decidir sobre la aceptación de dichas candidaturas.

6.- Hautagaien aldarrikapena edozein modutan Batzorde Nagusiak burutuko du. Eusko Ikaskuntza saiatuko da hautes-ekitaldiari ahalik eta publizitaterik handiena egiten Saileko bazkide guztien artean.

7.- Botazioak sekretuak izango dira eta hautagaiak edo hautagaiek aurkezturiko programa irakurri, programa horien edukia beren artean eztabaidatu eta bertan izango diren bazkideek egin nahi izango dituzten galderei erantzun ondoren burutuko dira.

Boto-gehiengo bakuna lortuko duena Lehendakari hautatua izango da. Hautagi bakarra gertatuko den hauteskundeetan baiezeko botoak ezezekoak baino gehiago izan beharko dira.

8.- Irteten den Lehendakariak edo, haren faltan, hauteskunde-buru izango den pertsona bakarreko karguak hauteskunde-akta burutuko du, bertan direnen aurrean irakurria izango da, berauek onartuko dute eta Elkarteko Idazkaritzara bidali egingo du. Saileko Lehendakariak berehala jabetuko da bere karguaz eta Elkarteko lehen Batzorde Nagusira bilduko da.

9.- Batzorde Nagusiak hobekien eritziko dion bezala erabakiko du izendapen-prozesuan gerta daitezkeen halako egoera berezietan, bai eta aurkapenetan ere.

Eztabaida amaiturik, araudi berria efektiboa izan dadin egin beharreko ahalduntze eta desahalduntzeak burutuko direla adierazten du Lehendakariak, araudi berri hau Batzar Nagusiak Eusko Ikaskuntzako Arautegia onartu artean indarrean izango delarik.

6.- La proclamación de los candidatos se hará en todo caso por la Junta Permanente. Eusko Ikaskuntza procurará dar la máxima publicidad del acto electoral entre todos los socios adscritos a la Sección.

7.- Las votaciones serán secretas y se celebrarán después de que el candidato o candidatos hayan leído el programa presentado, debatan entre sí el contenido de los respectivos programas y respondan a cuantas preguntas o cuestiones puedan formular los socios presentes.

Resultará elegido Presidente el candidato que obtenga mayoría simple de votos. En las elecciones en las que concurra un solo candidato será necesario que los votos positivos aventajen a los negativos.

8.- El Presidente saliente, o en su defecto el cargo unipersonal de la Sociedad que presida la elección, levantará acta de la elección que será leída a los asistentes y aprobada por los mismos, y la enviará a la Secretaría de la Sociedad. El Presidente de la sección tomará posesión de inmediato de su cargo y se incorporará a la primera Junta Permanente de la Sociedad que se celebre.

9.- La Junta Permanente resolverá como mejor proceda a su criterio aquellas situaciones singulares, incluso impugnaciones, que pudieran producirse en el transcurso del proceso de designación".

Concluido el debate el Presidente indica que se procederá a efectuar los apoderamientos y desapoderamientos necesarios para hacer efectiva la nueva normativa, que estará en vigor hasta la aprobación del Reglamento de Eusko Ikaskuntza por la Junta General. En ese momento podrá ser confirmada o revisada por la asamblea general de la Sociedad.

Arautegi Batzordea izendatzeko proposamena:

Lehendakariak Coro Cillán and., Tomás Urzainqui jn., Josu Erkoreka jn., José Manuel Castells jn. eta Adrián Celaya jn proposatzen ditu hartarako eraturiko Batzordean esku hartzeko eta irailean bildu beharko dena. Batzorde Nagusiak proposamena onartzen du.

Gurutzi Arregi andereak adierazten du ez dela komenigarria Urzainqui jauna bertan egotea Idazkaria eta Elkartea auzilara eraman dituelako; horri erantzunez, Lehendakariak dio Nafarroako Lehendakariordeak bere konfiantza osoa duela eta Batzorde horretako buru Lehendakaria izango dela.

Ekonomia Batzordea izendatzeko proposamena:

Lehendakariak adierazten du Batzorde Ttipiak arduratu egin dela proposatzen den Batzordearen osaketa honetaz. Honako izen hauek proposatzen ditu: José Ángel Ormazabal jn., José Zufiaurre jn., Juan José Etxeberria jn., Gaizka Uriarte jn., Alberto Gárate jn., Joaquín Arratibel jn., Josu Ardaiz jn. eta Mikel Aranburu jn. Batzordearen xedea gastuaren egituraren egokitasuna aztertzea izango da; konkretuki, alde batetik egitura eta funtzionamendu gastuen eta zientzi-iharduera zuzenari dedikaturikoen arteko egokitasuna, eta bestetik, aurrekontu-exekuziorako arau argien zehaztapena. Halaber, Azterketa Batzorde hau irekia dela adierazten du.

Tomás Urzainqui jaunak Xabier Arlabán jn. ere Batzorde horretako kide izatea proposatzen du.

Batzorde Nagusiak sarrera-proposamen hori onartzen du.

Propuesta de nombramiento de la Comisión de Reglamento:

El Presidente propone los nombres de D^o Coro Cillán, D. Tomás Urzainqui, D. Josu Erkoreka, D. José Manuel Castells y D. Adrián Celaya para la Comisión creada a tal efecto y que se reunirá el mes de Septiembre. La Junta Permanente acepta dicha propuesta.

D^a Gurutzi Arregi indica no ser conveniente la presencia del Sr. Urzainqui por haber llevado al Secretario y a la Sociedad a Tribunales por interpretación del Reglamento, a lo que el Presidente contesta que el Vicepresidente por Navarra cuenta con toda su confianza, y que será el Presidente el que dirigirá la Comisión.

Propuesta de nombramiento de la Comisión Económica:

El Presidente indica que la composición de la Comisión que se propone ha sido abordada por el Comité Ejecutivo. Propone los nombres de D. José Ángel Ormazabal, D. José Zufiaurre, D. Juan José Etxeberria, D. Gaizka Uriarte, D. Alberto Gárate, D. Joaquín Arratibel, D. Josu Ardaiz y D. Mikel Aranburu. La Comisión tendrá por objeto estudiar la adecuación de la estructura del gasto, en concreto, la correspondencia entre los gastos de estructura y funcionamiento y los dedicados a la actividad científica directa, y por otra parte, la definición de unas normas claras de ejecución presupuestaria. Indica que se trata de una Comisión de Estudio abierta.

D. Tomás Urzainqui propone que D. Xabier Arlabán forme también parte de la Comisión.

La Junta Permanente acepta dicha propuesta de integración.

José Miguel de Barandiarán Fundazioko Lehendakaria izendatzeko proposamena:

Lehendakariak adierazten du kontuzko arazoa dela berau eta karguaz jabetzerakoan topo egin zuela berarekin, zeren eta proposamena Maiatzaren 28an buruturiko Fundazioko Patronatoaren bileran egin zen, Oñatin Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria aukeratu baino zortzi egun lehenago alegia. Batzorde Nagusiko kideei hitza eman aurretik, gaiari buruz duen jarrera pertsonalaren inguruko gogoeta batzu egin nahi ditu.

Germán Yanke jaunaren eskariz Batzorde Nagusiko bazkideen artean banatu den Fundazioari buruzko informazioan agertzen denez, entitate berriaz jasorik dagoen lehen albistea 1988ko Martxoaren 26koa da. Ekitaldi hartan Sorrera Gutuna eta Estatutuak jadanik onartuak aurkeztu ziren eta honako erabaki hau hartu zen: "aurrerantzean aukeragaiak diren Eusko Ikaskuntzako kideak Batzorde Nagusiak proposatu eta onartuak izango dira".

Lehendakariaren eritziz badira Elkarteko Arautegi Batzordeak astiro aztertu beharreko arazoak; beraien artean helburu eta ekintzen nahasketa Elkartea eta Fundazioaren artean, zeren eta azken honek Prehistoria, Arkeologia, Antropologia eta Etnografiari buruzko azterketak argitaratukoak baititu. Bigarrenik, patrono gisa ageri diren Elkartekideen egoera pertsonal edo errepresentagarria: Fundazioak oro universitas bonorum dela kontuan harturik, hasierako patronoek dakartzaten ondasunen funtzioan esku hartzen duten eta Sorrera Gutunean agertzen direnek Eusko Ikaskuntzaren ondasuna ekarri dutenez, beraien patrono izaera Elkartearen ordezkari izateari dagokiola logikoa dirudi, Elkartea

Propuesta de nombramiento de Presidente de la Fundación José Miguel de Barandiarán:

El Presidente manifiesta que se trata de una cuestión delicada con la que se encontró en la toma de posesión, ya que la reunión del Patronato de la Fundación en que se produjo la propuesta tuvo lugar el 28 de mayo, ocho días antes de las elecciones de Presidente de Eusko Ikaskuntza en Oñate. Antes de conceder la palabra a los miembros de la Junta Permanente desea hacer algunas consideraciones respecto a su posición personal sobre el tema.

En la información sobre la Fundación, que se ha distribuido a los miembros de la Permanente a solicitud de D. Germán Yanke, consta que la primera noticia registrada sobre la nueva entidad se produjo en la Junta Permanente de 26 de marzo de 1988. En dicha sesión fueron presentadas la Carta fundacional y los Estatutos ya aprobados y se adoptó el acuerdo de que "en el futuro los miembros de designación de la Sociedad de Estudios Vascos sean propuestos y aprobados por la Junta Permanente".

Indica el Presidente que existen problemas que deberían ser examinados con detenimiento por la Comisión de Reglamento de la Sociedad: menciona entre ellos el solapamiento de fines y actividades entre la Sociedad y la Fundación, ya que esta última programará estudios sobre Prehistoria, Arqueología, Antropología y Etnografía. En segundo lugar la condición personal o representativa de aquellos miembros de la Sociedad que figuran como patronos: teniendo en cuenta que toda Fundación es una universitas bonorum, los patronos iniciales participan en función de los bienes que aportan, y dado que los que figuran en la Carta Fundacional han aportado patrimonio de Eusko Ikaskuntza, parece lógico que su

sortzeko orduan zituzten karguetatik ikus daitekeenez. Fundazioaren Estatutuen 7 eta 8. artikuluetan deskribaturiko Patronatoaren osotasunaren integrazio-teknika beste arazo bat dateke. Azkenik, Eusko Ikaskuntzak ekarritako ondarearen garrantzia aipatzen du, beronek Elkartearen benetako deskapitalizazioa bait da.

